Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko urriaren 9a, ostirala — 194 — Viernes, a 9 de octubre de 2015

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

*2015eko urriaren 17ko 721/2015 FORU AGINDUA, Gipuzkoako Boluntariotzaren 2015eko Sariaren deialdia egitekoa.*

Diputatuen Kontseiluak, 2014ko urriaren 14an egindako batzarraldian, Gipuzkoako Boluntariotzaren Saria emateko oinarri arautzaileak onartu zituen.

12. oinarriak Gizarte Politikako Departamentuko Foru Diputatuari ahalmena ematen dio urtero Gipuzkoako boluntariotzaren saria onartzeko, baldin eta ez diren aldaketak egiten oinarrietan.

Hori horrela, Gizarte Politikako foru diputatu honek,

ERABAKI DU

*Lehenengo.* Gipuzkoako Boluntariotzaren 2015eko Sariaren deialdia egitea.

*Bigarren.* Foru Agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Donostian dauden administrazioarekiko auzietako epaitegietan, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean. Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko honako Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke».

Jakin dezazun eta ondorio egokiak izan ditzan adierazten dizut hori.

Donostia, 2015eko urriaren 5a.—M.ª Socorro Equiza Equiza, idazkari teknikoa. (8521)

ERANSKINA

*2015eko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoako Boluntariotzaren Saria arautzen duten oinarriak.*

*1. Xedea.*

Gipuzkoako Boluntariotzaren Sariaren helburua da jendaurrean aitortzea, boluntarioekin eta boluntariotzaz, ikuspegi sozial, humanitario eta/edo solidariotik komunitateari zerbitzua emateko bokazioz jarduten duten eta interes orokorreko programetan, baztertutako taldeei laguntzen eta/edo jarraian zehazten diren arloak sustatzen nabarmendu diren pertsonek nahiz gizarte erakundeek egindako ibilbidea: berdintasuna, giza eskubideak, osasuna, gizarteratzea, kultura, kirola, babes zibila, gazteria, ingurumenaren babesa edo garapenerako lankidetza.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

*ORDEN FORAL 721/2015, de 5 de octubre de 2015, por la que se convoca el Premio al Voluntariado Guipuzcoano 2015.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 14 de octubre de 2014, aprobó las bases reguladoras del Premio al Voluntariado Guipuzcoano.

La base 12.ª faculta al titular del Departamento de Política Social para aprobar las convocatorias anuales del Premio al Voluntariado guipuzcoano, siempre que no se produzcan modificaciones de las bases.

En su virtud, esta diputada foral de Políticas Sociales,

RESUELVE

*Primero.* Convocar el Premio al Voluntariado Guipuzcoano 2015.

*Segundo.* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía los particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Diputado Foral en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

No se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente».

Lo que le traslado para su conocimiento y efectos.

San Sebastián, a 5 de octubre de 2015.—La secretaria técnica, M.ª Socorro Equiza Equiza. (8521)

ANEXO

*Bases reguladoras del Premio al Voluntariado Guipuzcoano de la Diputación Foral de Gipuzkoa 2015.*

*1. Objeto.*

El Premio al Voluntariado Guipuzcoano tiene como objeto reconocer públicamente la trayectoria de personas o entidades sociales de y con voluntariado que se hayan distinguido por su vocación y servicio a la comunidad desde una perspectiva social, humanitaria y/o solidaria; y que hayan venido participando en programas de interés general, de apoyo a grupos desfavorecidos y/o de promoción de la igualdad, los derechos humanos, la salud, la inserción social, la cultura, el deporte, la protección civil, la juventud, la protección del medio ambiente o la cooperación para el desarrollo.

EK\CV GAO-I-2015-08521

Sari honek aipatzen duen boluntariotza kontzeptua, 1998ko ekainaren 25eko 17/1998 Legeak, Boluntarioei buruzkoak, 2. artikuluan definitzen duena da.

Sariak modalitate bakarra dauka; eta pertsona fisikoek nahiz juridikoek eskuratu ahal izango dute.

*2. Sariaren dotazioa.*

Saria honako hau izango da: ziurtagiri edo diploma bat, saria jaso izanaren frogagiri gisa; eta oroigarri enblematiko bat. Ez da izango inolako ordain ekonomikorik.

*3. Betekizunak.*

Saria lortzeko hautagaiak honako hauek izan daitezke:

a) Gipuzkoan gutxienez 10 urtean irabazi asmorik gabeko gizarte entitateetan boluntario gisa diharduten edo jardun duten pertsona fisikoak, adin nagusikoak eta edozein nazionalitatetakoak.

b) Gipuzkoan gutxienez 10 urtean gizarte intereseko proiektuak boluntarioen bidez landu dituzten entitateak, legez eratuak eta irabazi asmorik gabeak; eta, halaber, boluntariotza sustatzeko xedea duten entitateak.

Hautagai diren pertsonak eta erakundeak ondorengo printzipioen aldekoak izango dira, edo behintzat ez dira kontrakoak izango: euskara erabiltzea berdintasuneko, kohesioko eta gizartegintzako elementu komun gisa; eta herritarren jatorri aniztasuna eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna errespetatzea eta onartzea.

*4. Hautagaiak aurkeztea.*

Lehenengo oinarrian zerrendatutako arloetan diharduten irabazi asmorik gabeko entitateek eta baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakundeek eta pertsona fisikoek aurkeztu ahal izango dituzte sari honetarako hautagaiak.

Ez dira aintzat hartuko entitateek bertako kideei buruz aurkeztutako hautagaitzak; ezta norberaren burua hautagai aurkeztea ere.

Epaimahaiak sarirako aurkeztutako hautagaien ibilbidea baloratu ahal izan dezan, proposamenekin batera hautagaiaren merituak ere aurkeztu beharko dira. Era berean, hautagai bat sarirako aurkezteko edo aurkezpenari abala emateko entitateak hartutako erabakiaren egiaztagiria ere erantsi beharko da. Hautagaitzei beste entitate batzuen abalak gehitu ahal izango zaizkie. Proposatutako hautagaia pertsona fisikoa bada, haren adostasuna eta lan egiten duen edo egin duen entitatearena ere beharrezkoak izango dira.

Ez dira hautagaitzaren abaltzat hartuko ez pertsona fisikoen sostenguak, ezta sinadura bilketak ere.

Hautagaitzak www.gizalde.com gunetik deskargatzen den ereduan aurkeztuko dira, bertan zehaztutako egitura eta luzera errespetatuz.

*5. Aurkezteko epea eta lekua.*

Hautagaitzak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da: deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gizarte Politikako Departamentuari zuzenduko zaizkio, eta aurkeztu ahal izango dira Gizarte Politikako Departamentuko Erregistro Orokorrean (Zarategi pasealekua, 99 behea, 20015 - Donostia), Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistro Zentralean (Gipuzkoa plaza z/g, beheko solairua, 20004, Donostia), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 38.4 artikuluan aurreikusitako bideetako batetik. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.gfaegoitza.net) dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira.

El concepto de voluntariado al que se refiere el presente premio es el definido por el artículo 2 de la Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado.

El premio tiene una única modalidad y a la misma podrán concurrir tanto personas físicas como jurídicas.

*2. Dotación del premio.*

El premio consiste en un certificado o diploma acreditativo de su concesión y en un objeto emblemático conmemorativo, sin que conlleve retribución económica.

*3. Requisitos.*

Podrán acceder al premio:

a) Personas físicas, mayores de edad, de cualquier nacionalidad, que hayan desarrollado o desarrollen una actividad como voluntarias en Gipuzkoa durante al menos 10 años en el seno de entidades sociales sin ánimo de lucro.

b) Entidades legalmente constituidas y sin ánimo de lucro que desarrollen en Gipuzkoa durante un mínimo de 10 años proyectos de interés social a través de programas con voluntariado, así como entidades cuyo fin sea la promoción del voluntariado.

Las entidades y personas candidatas deberán guardar una actitud favorable o al menos no contraria a los siguientes principios: la utilización del euskera como elemento común de igualdad, cohesión y vertebración social; y el respeto y el reconocimiento a la diversidad de orígenes de la ciudadanía y la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres.

*4. Presentación de candidaturas.*

Podrán presentar candidaturas a este premio las entidades sin ánimo de lucro que desarrollen su actividad en los sectores enumerados en la base primera así como las Instituciones y las personas físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

No serán tomadas en consideración las candidaturas que las entidades presenten de miembros de su entidad, ni las autocandidaturas.

A fin de que el jurado pueda valorar la trayectoria de las candidaturas presentadas al premio, las proposiciones deberán ir acompañadas de los méritos que concurren en las mismas. También se incorporará la acreditación del acuerdo de la entidad para presentar al premio una determinada candidatura o para avalarla. Podrán añadirse los avales de otras entidades a las candidaturas. Si la candidatura propuesta es una persona física, deberá constar su conformidad y la de la entidad en la que desarrolla o haya desarrollado su actividad.

No se consideran avales a las candidaturas ni el apoyo de personas físicas ni las recopilaciones de firmas.

Las candidaturas se presentarán en el modelo establecido y descargable en la página www.gizalde.com, y deberán ceñirse a la estructura y extensión previstas en dicho modelo.

*5. Plazo y lugar de presentación.*

El plazo de presentación de candidaturas será de 15 días naturales a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

Se dirigirán al Departamento de Políticas Sociales, y podrán presentarse en el Registro General del Departamento de Políticas Sociales (Paseo de Zarategi, 99 bajo, 20015 -San Sebastian), en el Registro Central de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Plaza Gipuzkoa s/n, planta baja, 20004 San Sebastián), o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Asimismo, podrán presentarse a través del Registro Electrónico disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://www.gfaegoitza.net).

EK\CV GAO-I-2015-08521

*6. Epaimahaia.*

Gipuzkoako Boluntariotzaren Sarira aurkeztutako hautagaien merituak 10 lagunek osatutako epaimahai batek aztertu eta baloratuko ditu. Epaimahaikide guztiak lehenengo oinarrian zerrendatutako arloetan diharduten irabazi asmorik gabeko entitateetakoak izango dira.

Epaimahairen konposaketan tamaina handiko entitateak baita txikikoak ere parte hartuko dute.

Gainera, epaimahaikideetako bat aurreko urtean saria jaso zuen entitatea edo pertsona izango da.

Epaimahaian parte hartu nahi duten entitateek pertsona ordezkari bat, eta haren ordezkoa, izendatu beharko dituzte.

Ahalegina egingo da gizonen eta emakumeen kopurua berdina izan dadin epaimahaian; eta honako alor hauek denak ordezkatuta egon daitezen:

— Haurrak eta gazteria.

— Helduak eta adinekoak.

— Kultura aniztasuna.

— Desgaitasuna eta gaixotasuna.

— Gizarte inklusioa.

— Babes zibila eta emergentziak.

— Ekologia eta ingurumena.

— Garapenerako lankidetza.

— Beste batzuk.

Eztabaidan parte hartuko dute, hitzarekin baina botorik gabe, honako hauek: Gizarte Politikako Departamentuko kargudun politiko batek eta teknikari batek (bera izango da idazkaria); eta Gizalde boluntariotza sustatzeko zerbitzuko kide batek, aipatu departamentuarekin hitzartuta.

Hitza eta botoa duten epaimahaikideak ezingo dira izan sarirako hautagai diren edo hautagairen bati abala eman dioten entitateetakoak.

Epaimahaikideek beren artean izendatuko dute mahaiburu lanetan arituko dena.

*7. Hautagaien ebaluazioa.*

Hautagaiak aurkezteko epea amaitutakoan, eta epaimahaia eratu aurretik, Gizarte Politikako Departamentuak egiaztatuko du betekizun guztiak betetzen dituztela; eta hautagaiak aurkeztu dituzten entitateei jakinaraziko die beren hautagaia onartua izan den ala ez.

Aldi berean, Gizarte Politikako Departamentuak behar diren izapideak burutuko ditu epaimahaia eratzeko, 6. oinarrian zehaztutako irizpideetan oinarrituta.

Epaimahaia eratutakoan, banan-banan aztertuko ditu onartutako hautagaitza guztiak. Gero, 8. oinarrian azaldutako balorazio irizpideen arabera eztabaidatu ondoren, saria emateko proposamena egingo du, saria entregatzeko aurreikusitako eguna baino 10 egutegi-egun lehenago gutxienez. Epaimahaiak isilpean gordeko ditu aurkeztutako hautagaitzak, izandako eztabaidak eta saria emateko proposamena.

Saria hutsik deklaratu eta inori ere ez ematea proposatu ahal izango du epaimahaiak: ikusten badu aurkeztutako hautagaietako batek ere ez daukala saria jasotzeko behar den adinako meriturik.

Berdinketarik gertatuz gero, mahaiburuak izango du kalitatezko botoa.

*8. Baloratzeko irizpideak.*

Aurkeztutako hautagaien merituak baloratzeko, alderdi hauek izango ditu kontuan epaimahaiak: konpromiso sozial eta solidarioaren maila; jardueran etenik gabe daraman denbora; gizarte proiekzio positiboa eta egindako lanaren balioa; eta egoki deritzon beste irizpideren bat ere gehitu ahal izango du.

*6. Jurado.*

Los méritos de las candidaturas presentadas al Premio al Voluntariado Guipuzcoano serán examinados y valorados por un jurado compuesto por 10 personas, pertenecientes a entidades sin ánimo de lucro cuya labor se desarrolle en las áreas enumeradas en la base primera.

En la composición del jurado quedarán representadas tanto las entidades de gran tamaño como las pequeñas.

Una de ellas será la entidad o la persona que haya resultado premiada el año anterior.

Las entidades que deseen participar en el jurado deberán de designar una persona representante y una suplente.

Se procurará que el jurado tenga una composición paritaria de hombres y mujeres, y que estén representados cada uno de los sectores siguientes:

— Infancia y juventud.

— Adultos y mayores.

— Multiculturalidad.

— Discapacidad y enfermedad.

— Inclusión social.

— Protección civil y emergencias.

— Ecología y medioambiente.

— Cooperación al desarrollo.

— Otros.

Intervendrán en la deliberación, con voz y sin voto, las siguientes personas: un cargo político y un técnico o técnica del Departamento de Políticas Sociales (que actuará como secretario o secretaria) y un/a miembro del servicio de apoyo al voluntariado Gizalde, concertado con el departamento.

Las y los miembros del jurado con derecho a voto no podrán pertenecer a las entidades que son candidatas al premio o que avalan a otras.

Las y los miembros del jurado designarán de entre ellos a quien actúe como presidente o presidenta del mismo.

*7. Evaluación de las candidaturas.*

Finalizado el plazo para la presentación de candidaturas, y previo a la constitución del jurado, el Departamento de Políticas Sociales verificará el cumplimiento de los requisitos y notificará a las entidades que han presentado candidatura la aceptación o denegación de la misma.

Paralelamente, el Departamento de Políticas Sociales realizará las gestiones necesarias para la constitución del jurado en base a los criterios determinados en la base 6.

Constituido el jurado, éste analizará individualmente las candidaturas aceptadas. Tras la deliberación oportuna en base a los criterios de valoración expuestos en la base 8, formulará una propuesta de concesión con una antelación mínima de 10 días naturales a la fecha prevista para la entrega del premio. El jurado mantendrá el secreto de las candidaturas presentadas, de las deliberaciones que se produzcan y de la propuesta de concesión.

El jurado podrá proponer declarar desierto el premio, si considera que ninguna de las candidaturas presentadas acredita un mínimo de méritos suficiente para recibirlo.

En caso de empate, la presidencia ostentará el voto de calidad.

*8. Criterios de valoración.*

El jurado valorará los méritos de las candidaturas presentadas en relación con los aspectos siguientes: nivel de compromiso social y solidario, tiempo en el que de manera continuada ha venido desarrollando la actividad, proyección social positiva y valor de la actuación realizada; pudiendo añadir algún otro que considere oportuno.

EK\CV GAO-I-2015-08521

9. *Saria ematea.*

Saria ematea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da; eta dagokion iragarkiak hautapena egin duen epaimahaiaren osaera ere azalduko du.

10. *Gipuzkoako Boluntariotzaren Saria entregatzea.*

Gipuzkoako Boluntariotzaren Saria ekitaldi publiko instituzional batean entregatuko da. Ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian izango da, abenduaren 5aren inguruan, hori baita Boluntariotzaren Nazioarteko eguna; eta saria jasoko duen pertsona edo entitatea bertan dela.

Ekitaldira gonbidatuko dira epaimahaikideak, hautagaiak eta, oro har, Gipuzkoako Lurralde Historikoko boluntariotzako elkarte eta entitateak.

11. *Gipuzkoako Boluntariotzaren Sariaren zabalkundea.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak egoki iritzitako bideetatik emango die zabalkundea Gipuzkoako Boluntariotzaren Sariari eta sarituen merituei, hala nola: prentsaren bidez, erakundearen webguneetan, etab.

12. *Oinarri hauek onartzea.*

Gipuzkoako Boluntariotzaren Sarian hautagai gisa edo epaimahaikide gisa parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek denak banan-banan onartzen direla.

9. *Concesión del premio.*

La concesión del premio se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa; y el anuncio correspondiente deberá contener la composición del jurado que ha hecho la elección.

10. *Entrega del Premio al Voluntariado Guipuzcoano.*

La entrega del Premio al Voluntariado Guipuzcoano se realizará en un acto público de carácter institucional, que tendrá lugar en el palacio de la Diputación Foral de Gipuzkoa en una fecha próxima al 5 de diciembre, Día Internacional del Voluntariado, con la presencia de la persona o entidad galardonada.

Se invitará a dicho acto público al jurado, a las personas y entidades candidatas y, en general, a las asociaciones y entidades de voluntariado del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

11. *Difusión del Premio al Voluntariado Guipuzcoano.*

La Diputación Foral de Gipuzkoa divulgará la concesión del Premio al Voluntariado Guipuzcoano y los méritos de las personas y entidades galardonadas a través de los medios que estime oportunos, tales como prensa, espacios web institucionales, etc.

12. *Aceptación de las presentes bases.*

La participación en el Premio al Voluntariado Guipuzcoano como candidato/a o como jurado comporta la aceptación de todas y cada una de estas bases.

EK\CV GAO-I-2015-08521